

UDALEKU IREKIAK

Beste urte batez, Enkarterriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Udaleku Irekiak antolatu ditu, ume euskaldun edota eredu euskaldun batean ikasten dutenen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Euskararen erabilera aisan urte osoan lantzen saiatzen gara Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan, baina, **udan** hartzen du protagonismo handiena. Izan ere, ikasturtea amaituta, haur eta gazteek aisialdiaz gozatzeko tarte handiagoa izaten dute, baina, **aukera gutxiago euskara entzuteko eta erabiltzeko**, etxean gehienek senide euskaldunik ez baitute. Horregatik, gurasoei jakinarazi nahi diegu oso garrantzitsua dela uda garaian haurrei euskaraz aritzeko aukerak eskaintzea. Hutsune hori betetzeko, azken urteetan bezala **Udaleku Irekiak** izango ditugu.

Ekintzak **uztailaren 1etik 15era** egingo dira eta goizez, 10:00etatik 14:00etara. **350** pertsonentzako lekua egongo da, gehienez. Beti bezala, ume gehiagok izena ematen badute plazak **zozketa** baten bitartez esleituko dira **maiatzaren 20an**. Parte-hartzaileek **hainbat baldintza bete beharko dituzte:**

-**2001-2006 urteetan** jaioak izan.

-Mankomunitatea osatzen duten udalerriren batean **errolatuta** egon.

-Euskarazko eruedetan ikasi.

Aurreko urteetan bezala, **lau gune** osatuko ditugu: **Zalla, Sodupe, Sopusuerta** eta **Karrantza**. Lau gune horietan Mankomunitatean dauden 9 udalerrietako umeek parte hartu ahal izango dute. Beste udalerrietako umeak eraman eta ekartzeko autobusak jarriko dira.

Oso **eskaintza erakargarria** daukagu aurten ere, eta umeek askotariko ekintzak egiteko aukera izango dute, gehienak kanpoan egitekoak: Kanoak, zaldiak, akanpada, tailerrak, bizikletaz bide gorrietatik, surf, igerilekuak,... Dena den, **lehentasuna euskara bultzatzea** da eta horretarako udalekuen zehar euskararen erabilera bultzatzeko beren beregi prestatutako ekintza orokorra eta jarraitua egingo da.

Izena emateko epea **apirilaren 25ean hasi eta maiatzaren 8an** bukatuko da. Matrikula egiteko prozeduran berrikuntza bat izango da: banaka edo taldeka egin ahal izango da. Taldeko **3 neska/mutil gehienez**, eta **urte berekoak** izan beharko dira denak. Neba-arrebak badira, gehienez, urte bateko aldea eduki ahal izango dute. Plaza lortzeko orduan, aukera berdintasuna bermatzearen, **ume bakoitzeko eskaera-**

orri bakarra onartuko da eta taldea unitatetzat hartuko da zozketa egin behar izatekotan.

Propaganda eta izena emateko orria eskoletan banatu da eta Kultur Etxe edo liburategietan izango dute eskuragai. Behin matrikula orria beteta, Mankomunitatean edota udalerrietako Kultur Etxe edo Liburategietan utzi beharko da. Aurten, lehenengo aldiz, matrikula **on-line** egiteko aukera izango dute udalekuetarako prestatutako **web orrian** bertan: www.enkarterrikoudalekuak.com. Web orri horretan udalekuei buruzko informazioa egongo da eta udalekuak egiten diren bitartean ateratzen diren argazkiak eta jardueri buruzko komentarioak eskegiko dira. Beraz, informazio gehiago nahi izatekotan www.enkarterri.org edota www.enkarterrikoudalekuak.com web orrietan topatu ahal izango dute.